22. Leon eta Rob Krier: Hirien hiria

1. Sarrera: Leon eta Rob Krier anaiak arkitekto eta hirigile luxenburgoarrak dira. Hastapenetan lana batera egiten bazuten ere, arkitektura-estudio ezberdinak osatzen dituzte egun, baina hiriarekiko pentsaera komunekin. Rob zaharrena da, eta eraikuntza-lan asko garatu ditu; Leonek ez du ia arkitektura eraiki, haren energiak teoriaren arloan metatu dituela. Biek ala biek hirigintza-plan anitz diseinatu dituzte. Hiriaren ikuspegi kulturalista eta neo-historizistaren partaide erradikalenak ditugu Krier anaiak. Leon Krierrek, bereziki, hiriaren ikuspegi artistikoa aldarrikatu du, "proiektu ekologikoa" deitu izan duen kontzeptu-multzoan, honako ezaugarriak dituena:
    - Hiria mugatu beharra dago, inguruko larreak erabat bete ez ditzan.
    - Hiriaren osagarri nagusiak auzoak dira: autonomia formal eta funtzionaleko multzo dentsoak, *hirien hiria* osatzen dutenak. Haien tamaina hiritar batek oinez egiten duen distantzian oinarritua dago, beti ere 10.000 biztanle baino gutxiagokoak izanik. Auzo bakoitzak espazio publikoen jerarkia argiro artikulatua izan behar du, plaza eta kale nagusi batekin, eta hiri-mugarri garrantzitsu bat auzoaren perimetroa mugatuz (bulebarra, parkea, lakua, eta abar). Aldiriei hiri-auzo izaera emateko haien dentsitatea handitu beharra dago.
    - Eraikinek ez dituzte altuera oso handiak behar. Bi eta bost solairu arteko garaierarekin nahikoa da.
    - Etxe-irla batean bloke bakarra egotea ekiditu beharra dago (aniztasuna bilatze aldera).
    - Eraikin publikoek diseinu eta kokagune berezia behar dute.
    - Erabilera desberdinak nahastu egin behar dira. Artisauek eta industria txikiek hirian lekurik badute (multinazional handien aurkako ezkerreko ikuspegia).

2. Proiektuak:
    - Hasierako arkitektura marraztuak eta proiektu eraikigabeak, 1965-1975 (L. Krier). Agertzen diren ezaugarriak: Le Corbusierren eragina, arkitektura-hondarrekiko lilura, James Stirlingen eragina, lehen espazio inflesionatuak, labirintoak…
    - Notre-Dame plazako konkurtsoa, Amiens, 1975 (L. Krier). Landutako ideiak: Espazioaren mugatzea itxituraren bidez, atea…
    - La Villette parkeko konkurtsoa, Paris, 1976 (L. Krier). 35 ha. Proposatutako operazioak: Lehendik zegoen ardatz nagusian 16,1 hektareako parke bat ezartzea eta beste ardatz elkartzuta marraztea, aurretik zeuden bi eraikin industrial nagusiak lotze aldera, horien funtzioak eraldatuz; gainontzeko eraikin publikoak ardatz horretan kokatzea; eraikin berezi eta luze batek auzoaren mendebaldeko muga zedarritzea (artistentzako etxebizitzekin); auzo handia hiru auzo txikitan zatitzea, bakoitza plaza batez hornituz; hiri-morfologiari dagokionez, barnealdera etxe-irla txikiak antolatzea, ertzetan eraikin handiagoak ezarriz (batzuk erabilera industriala izanik).
    - *Roma Interrotta* edo Erroma Etena delako erakusketarako proposatutako proiektu teorikoa, Erroma, 1978. Giambattista Nolliren 1748ko planoaren gainean egindako marrazkiak. Arkitekto ezberdinek aurkeztu zituzten haien lanak, Nolliren planoarekin jolastuz. Leon Krierrena probokazio teorikoa izan zen, eraikin publikoak Erromako gune garrantzitsuenetan kokatuz. Eraikinok estalki handiak ziren, koloma formako eraikinetan bermaturik. Historiako monumentu-eraikinenganako grina nabari zitzaion. Bremenerako herriko etxearen proiektuan ideia berdina garatu zuen, 1980an.
    - Södermalm barrutiaren berrantolakuntza, Estokolmo, 1981 (L. Krier). Estokolmoko alde zaharra (Gamla Stan) eredu gisa hartuta, Södermalm barruti handia 32 hektareako barruti txikiagoetan zatitzea proposatu zuen (bakoitza 12.000 biztanlekoa), hiri polizentrikoa aldarrikatuz. Haren esanan, "Södermalmek ez du zentru berri bat behar, 15 zentru berri baizik".
    - Bentaberriko auzune berria, Donostia, 1990 (L. eta R. Krier).
    - San Juan plaza, Irun, 1990 (L. eta R. Krier).
    - Brandevoort, Helmond, Herbehereak, 1996-2015 (R. Krier eta Christoph Kohl). 15.000 etxebizitza. Eindhoven eta Helmond artean kokatua. Herrixka txikien moduan antolatua, erdiko gotorleku-herrigunearen inguruan.
    - Broekpolder, Beeverweijk, Herbehereak, 2001 (R. Krier eta Christoph Kohl). 500 familiabakarreko etxebizitza atxikiak. Gazteluaren metafora aurrerago eraman dute.
    - Slot Haverleij, 's-Hertogenbosch, Herbehereak, 1998 (R. Krier eta Christoph Kohl). Plan orokorra Sjoerd Soetersek diseinatua, 6.000 etxebizitza 220 hektareatan antolatuz (27 etxebizitza/ha). Gazteluen metafora modu barregarrian erabilia, golf zelaigunean barreiaturik.